



# ICAGI

ILUSTRE COLEGIO DE ABOGADOS DE GIPUZKOA  
GIPUZKOAKO ABOKATUEN ELKARGO PRESTUA

## La JUNTA informa / BATZORDEA informatzen du

El ICAGI asiste a las jornadas organizadas por **RedAbogacía** sobre soluciones tecnológicas para la abogacía celebradas en Madrid.

Por parte del ICAGI han asistido a las jornadas Andoni García Imaz, diputado de Junta de Gobierno y responsable de la Comisión de Nuevas Tecnologías del Colegio, y Eduardo Gárate, bibliotecario.

Las Jornadas se han celebrado durante los días 5 y 6 de noviembre en la sede del Consejo General de la Abogacía Española, y sobre todo se han tratado los temas de Lexnet y SIGA .

LexNet es la plataforma de intercambio seguro de información entre los órganos judiciales y una gran diversidad de operadores jurídicos que, en su trabajo diario, necesitan intercambiar documentos judiciales (notificaciones, escritos y demandas). En la actualidad cuenta con más de 40.000 usuarios y es utilizado en más de 2.600 órganos judiciales.

Don Carlos Carnicer, Presidente del Consejo General de la Abogacía, fue el encargado de inaugurar las jornadas, recordando que el Consejo de Europa ha concedido el Premio 'Balanza de Cristal de la Justicia' al Consejo General de la Abogacía Española por el Expediente Electrónico de Justicia Gratuita, y que la página web del Consejo está entre las finalistas del premio "Dominios.es" como mejor web corporativa.

### **SIGA y su apertura a los colegiados.**

El primer día de las jornadas se centró en el SIGA, el software de gestión colegial. Destacando que 63 colegios de abogados están utilizando la herramienta,

ICAGIk parte hartu du **RedAbogacía** sareak abokatuzarako soluzio teknologikoei buruz antolatutako jardunaldietan, Madrilen .

ICAGItik, Gobernu Batzordeko diputatu eta Elkargoko Teknologia Berrien Batzordeko arduradun den Andoni García Imazek eta Eduardo Gárate liburuzainak parte hartu zuten jardunaldietan.

Jardunaldiak azaroaren 5ean eta 6an izan ziren, Espainiako Abokatuzaren Kontseilu Nagusiaren egoitzan, eta Lexnet eta SIGA izan zituzten aztergai nagusi.

LexNet eguneroko jardunean dokumentu judizialak (jakinarazpenak, idatziak eta eskeak) trukatu behar izaten dituzten askotariko eragile juridikoei eta organo judizialek informazioa modu seguruan trukatzeko erabil dezaketen plataforma da. Gaur egun, 40.000 erabiltzailetik gora ditu, eta 2.600 organo judizialean baino gehiagotan erabiltzen dute .

Carlos Carnicer Abokatuzaren Kontseilu Nagusiko presidentek inauguratu zituen jardunaldiak, eta gogora ekarri zuen Europako Kontseiluak 'Justiziarren Kristalezko Balantza' saria eman diola Espainiako Abokatuzaren Kontseilu Nagusiari Doako Justiziako Expediente Elektronikorengatik; halaber, nabarmendu zuen Kontseiluaren webgunea web korporatibo onenaren "Dominios.es" saria jasotzeko finalistetako bat dela.

### **SIGA eta elkargokideei begirako hedapena**

Jardunaldien lehen egunean, SIGA elkargoen kudeaketarako softwarea izan zuten ardatz. Nabarmendu zuten abokatuen 63 elkargok tresna hori

y que está aumentando el uso de la misma: nuevos Colegios, nuevas funcionalidades y nueva-os colegiadas-os. También cabe destacar otro aspecto como el mantenimiento evolutivo que se lleva a cabo de la herramienta.

Uno de los puntos sobre los que se trabajó con más profundidad, fue la apertura de SIGA a los colegiados, con el objetivo de aumentar servicios que se prestan a los mismos, y que estos dispongan de más flexibilidad y rapidez a la hora de realizar gestiones ante el Colegio. Por ejemplo, realizar consultas sobre su propia información, registrar asistencias, justificación del turno de oficio, saber si a sus clientes les han concedido o no Justicia Gratuita y solicitudes de cambios de guardias entre compañeros, entre otros.

En las jornadas se presentó la nueva aplicación “Volante Express”, que permite realizar justificaciones de asistencias de guardias a través de un dispositivo móvil.

## Lexnet Abogacía.

El segundo día el tema principal fue la presentación del proyecto Lexnet Abogacía. Mediante esta aplicación se podrán presentar on line escritos y recibir notificaciones de los órganos judiciales.

Por parte del Ministerio de Justicia asistieron Jose Luis Hernández, subdirector general adjunto de la Subdirección General Nuevas Tecnologías y Ángel Tomás Ruano, miembro de la Unidad de Apoyo de la Secretaría General. Durante su intervención explicaron que desde la Administración de Justicia se realizará el despliegue del sistema LexNet de forma progresiva y por provincia.

Respecto a los Colegios de Abogados, se describió que la implantación se realizará por fases :

1- Fase de arranque: se iniciará con una fase de coordinación entre el secretario de gobierno del órgano jurisdiccional competente, el colegio de abogados y el Consejo General de la Abogacía. Se organizarán jornadas informativas y se enviará el censo de letrados al Ministerio para que lo dé de alta en el Sistema de Gestión Procesal.

2- Fase de doble vía: en esta fase se permitirá al abogado-a utilizar las dos vías de comunicación (LexNet y la tradicional en papel) tanto para la presentación de escritos como para la recepción de comunicaciones.

3- Fase de vía única: en esta última fase Lexnet se implantará como la vía de comunicación preferente.

erabilitzen dutela eta kopuru hori handitzen ari dela: elkargo berriak, funtzionalitate berriak eta elkargokide berriak. Tresnari egiten zaion mantentze ebolutiboa ere azpimarratu zuten.

Sakontasunez landu zuten puntuetako bat SIGAk elkargokideei begira izandako hedapena izan zen. Hedapen horren xedea da elkargokideei zerbitzu gehiago eskaintzea eta horiek malgutasun handiagoz eta bizkorrago egin ahal izatea izapideak Elkargoan. Esaterako, euren informazioa kontsultatzea, bertaratzak erregistratzea, ofiziozko txanda justifikatzea, euren bezeroei doako justizia eman dieten edo ez jakitea eta lankideen artean guardia aldaketak eskatzea.

Jardunaldietan “Volante Express” aplikazio berria aurkeztu zuten, guardien bertaratzeen egiaztagiriak gailu mugikor baten bidez egitea ahalbidetzen duena.

## Lexnet Abogacía proiektua

Bigarren egunean, gai nagusia Lexnet Abogacía proiektuaren aurkezpena izan zen . Aplikazio horren bidez, aukera izango da idatziak on-line aurkezteko eta bide beretik jasotzeko organo judizialen jakinarazpenak.

Justizia Ministerioaren ordezkari gisa, bertan izan ziren Jose Luis Hernández, Teknologia Berrien Zuzendariordetza Nagusiko alboko zuzendariorde nagusia, eta Ángel Tomás Ruano, Idazkaritza Nagusiko Laguntza Unitateko kidea. Euren mintzaldian azaldu zuten Justiziako Administrazioetik pixkanaka eta probintziak hedatuko dutela LexNet sistema.

Abokatuen elkargoei dagokienez, faseka ezarriko dutela azaldu zuten :

1- Hasierako fasea: organo jurisdikzional eskudunaren gobernu idazkariaren, abokatuen elkargoaren eta Abokatutzaren Kontseilu Nagusiaren arteko koordinazioarekin abiaraziko da. Informazio saioak antolatuko dira, eta abokatuen errolda bidaliko zaio Ministerioari, alta eman diezaion Kudeaketa Prozesaleko Sistemari.

2- Bide bikoitzeko fasea: fase honetan, abokatuak komunikaziorako bi bideak erabili ahalko ditu (LexNet eta paperezko bide tradizionala), bai idatziak aurkezteko, bai jakinarazpenak jasotzeko.

3- Bide bakarreko fasea: fase honetan, LexNet komunikaziorako lehentasunezko bidea izango da.

Para facilitar su uso entre las/os letradas-os, la Infraestructura Tecnológica de la Abogacía Española ha desarrollado Lexnet Abogacía, una aplicación con una interfaz sencilla de utilizar y que está totalmente integrada con el sistema LexNet del Ministerio de Justicia.

La nueva aplicación dispone de un sistema de alertas por email y SMS configurables para que la/el abogada-o esté informado en todo momento de la llegada de nuevas notificaciones o de cualquier incidencia que pudiese surgir en Lexnet.

Entre las medidas que se pondrán en marcha para informar y formar a los profesionales, se señaló que desde RedAbogacía se reforzará el Servicio de Soporte Técnico, se organizarán jornadas formativas, se difundirán trípticos, manuales de usuario, videotutoriales y una wiki.

En la implantación de Lexnet Abogacía, el uso del carné colegial con certificado digital ACA será obligatorio para entrar en el sistema.

Abokatuei aplikazioaren erabilera errazteko, Espainiako Abokatutzaren Azpiegitura Teknologikoak Lexnet Abogacía garatu du, erabilera errazeko interfazea duen aplikazio bat, erabat integratua dagoena Justizia Ministerioaren LexNet sisteman.

Aplikazio berriak posta elektronikoz eta SMS bidez abisua emateko sistema bat dauka, konfiguratu egin daitekeena abokatuak une oro jaso dezan jakinarazpen berriei edo Lexneten sor daitekeen edozein gorabeherari buruzko informazioa.

Aipatu zutenez, abokatuei informazioa eta prestakuntza emateko zenbait neurri hartuko dituzte RedAbogacía saretik, eta, horien artean, honako hauek nabarmendu zituzten: indartu egingo dute Laguntza Teknikoko Zerbitzua; prestakuntza jardunaldiak antolatuko dituzte, eta triptikoak, erabiltzaileentzako esku-liburuak, tutoretzako bideoak eta wiki bat banatuko dituzte.

Lexnet Abogacía aplikazioa ezartzean, ACA ziurtagiri digitala duen elkargokide txartela erabili beharko da, nahitaez, sisteman sartzeko.